

## EUSKAL DOKTORADUTZA TA IKERKETAK IPARRALDEAN

Txomin Peillen

**1. Euskal doktoradutza** eta D.E.A. deritzaion bere lehenbako urteko azterketak Bordeleko Hizkuntza Bizien Doktor Eskolarekin lotuak dira, nahiz ematen den doktoradutza Pauko ta Bordele III ko Unibertsitateek emana den eta klaseak Baionako fakultatean.

Hirugarren ziklo hortan sartzeko, bigarren mailako, eta azken urteko "maitrise" edo hein berdinekoa eduki behar da. Izen ematearekin batean ikerketa gaia orokorki eman behar da, lehen urtea igarota zertxobait aldatzen bada ere.

Doktoradutzako lehen urtean idatzizko, ahozko azterketak badira, baina lehen tesina bat ere aurkeztu behar da. Bi urteez egin daiteke.

*Ikasketak* ikasbidetazko ehun ordu irakaspen ematen da urtean, hortik kanpo mintegiak badira, gaiak bi ardatzetan daudelarik, hizkuntzalaritza ta literatura bata ta gizarte eta giza jakintzak bestea. Gaiak hauek dira:

- Arkeologia eta prehistoria (Chauchat ja. Frantziako CNRS ekoia ta Eusko Ikaskuntzakoak)
- Karlismoa ta abertzalesuna (Letamendia ja. Bordele III)
- Euskal Herriko geografia (Laborde ja. Bordele II.koa)
- Euskal alorreko etnologia (Bidart ja. Pauko unibertsitatekoa)
- Euskal eskubidearen kondaira (Lafourcade anderea, Baionakoa eta Eusko Ikaskuntzako)
- Hizkuntzalaritza ta dialektologia (Allières ja. Toulouse II)
- Gaurko literaturata Ideien kondaira (Peillen ja. Baionakoa eta Eusko Ikaskuntza-koak)
- Onomastika ta literatura zaharra (Orpustan ja. Bordele III)
- Euskal alorreko soziologia (Bidart ja. Pauko)

Gure ikasleak langille izan ezkerro irakaspenak asteazkean eta larunbatean ematen dira.

Azterketak idatzizko zati bat urtean igaro ondoren gai bakoitzean, urtearen azkeneko idatzizkoan aukeratzen du ikasleak gai bat hizkuntza-litteraturazko, eta bestea gizarte jakintzen artean. Hirur erakasleen aurrean ahozko azterketa igarotzen da, idatzizkoan hauta ez den gai batez galdera batzuk egin ondoren, tesinaz "memoire de DEA" delakoaz mintzarazten da.

Azkenik 100 orrialdetako proiektua aurkezten da hirur erakasleen aurrean; jadanik tesiaren helburuak, metodoak, lehen emaitzak, bibliografia ta beste eman behar dira tesina hortan zehazki; horren ondorioz azterketa garaitu dutenek "Diplome d'Etudes Approfondies" delakoa daukate eta doktoradutza zuzenean egin dezakete, hirur/laur urteez.

Lehen bi doktoradu zeuden, bata Estaduko sei - hamar urteez egiten zen mila orrialdeetako pottoloa, eta profesore izateko bestea lau urteez egina fakultatean, beheko hierarkian egoteko, orain bat bakarrak egiten da, nahiz sistema zaharreko batzu gelditzen diren bukatzezko.

Oraingoan hamar bat doktoradutza abiatuak dira, gehienak hizkuntzalaritzaz eta literaturaz. Gure doktoradutzak, ordea, ez dauka lanpide askorik ematen hirur erakasle postu baizik ez delarik Unibertsitatean eta bi ikerlari munduan (Gure doktoradutzatik kanpo, Iparraldean, doktor ikerketarik egin da, Hautes Etudes delakoetan, baita literatura konparatuaren ere).

### 2. Doktoradutzatik kanpoko ikerketak: URA IO55.

Unibertsitate barneko ikerketak "unité de recherche" edo URA batean egin daitezke CNRS (Centre National de la Recherche Scientifique) ekin lotua dena eta halaxen egiten da Bordele III.ko horrekin. Talde honen buru ta suspertzalea J.B. Orpustan Bordeleko erakasle jauna da ta taldeak administratza hango unibertsitatean dauka, baina alde batetik

ekintza gehienak Baionan ematen dira; taldean kide dira Bordeleko, Toulouseko euskal erakasleak, Pariseko ta CNRS eko ikerlariak eta bat edo beste badago unibertsitari ez dena.

URA horren gaiak euskal hizkuntza ta zibilizazioa dira. Ikerketa hizkuntza euskara, gaztelania ta frantsesa izan daitzke. Ikersail honek doktoradutzarekin loturak ditu, baina bere ardatz nagusia ihardunaldi antolatzea da eta besteen iker-biltzarretan kide izatea, diruz eta ikerketaz.

URA-k azken lau urteetan *hirur ihardunaldi* nagusi egin ditu 1. "Euskaldunak eta Frantzes Iraultza Haundia" duela bi urte; 2. auren "Euskal historiografia ta literatura Iraultzaz XIX. mendean" eta "Euskara beste hizkuntzekin konparatua". Diruz eta lagunez *hirur Iker-biltzarretan* kide izan da Euskaltzaindiarekin batean: Elizanburu-rena, Bonaparte-rena eta Oihenarterena (argitalkide izanki ere). Bestalde Euskal herriko Hizkuntza Atlasean, Jenofa Erguy informatikalararen ordaintzen lagundu du.

*Argitalpenak* Hirur liburu argitaratu ditu: *Oihenart, proverbes et poemes; Le lexique d'Oihenart; 1789 et les Basques.*

#### Ikerkideak:

ALLIERES Jacques jauna, Toulouse -ko Unib. erakaslea.

ARCOCHA Aurelia anderea, Bordele III ko euskal erakaslea.

HARITSCHELHAR Jean jauna, Bordeleko erakasle ohia.

MORVAN Michel jauna, gaztelania erakaslea.

OIHARCABAL Bernard, CNRS ekoia.

ORPUSTAN Jean Baptiste jauna, Bordele III ko euskal erak.

REBUSCHI Georges jauna, Paris III Sorbonne-ko erakaslea.

VIDEGAIN Xarles, CNRS-Euskaltzaindiko ikerlari.

#### URA-ren geroko asmoak 1994-1998

Hemendik bi urte, URA-k "Etnografia ta linguistika" gaia lukean ihardunaldia antolatu nahi du, euskal ikerketaz ardurtzen diren herritar ta kanpotarrak deituz. Bestalde urte berean edo, ihardunaldi berdinean "Fonologiaz, oraingo teoriak eta euskarari aplikatzea" bigarren gaia lizateke.

Bigarren ihardunaldiak literaturaz litzek "Urrezko rnende erdi bat euskal letretan 1600-1660" "URA kongresukide lizateke" Abadia Urrustoi ren mendeurren delakoan, Euskaltzaindiarekin

Ikerketa ardatz legean J. Allières-ek "Urten gramatikaz". G. Rebuschi-k "Gaurko euskal sintaxiaz" J.B. Orpustan-ek "Onomastika ta etimologiaz" landu lezakete. Azken ikerlari honek gertutu egin du "Méthode abrégée de traduction du basque au français". Doktoraduan dabilzanek "hizkuntza, prosodia ta musika"ren arteko harremanez sail bat ireki dut.

#### Centre d'Etudes basques (section juridique) Baionakoa

**Helburua.** Oraingo eta aintzirako euskal legeen eta ideologien ikerketa taldea izan nahi du eta beste unibertsitate ta iker-zentruetako ikerlarietako harremanak eta ekintzak eduki.

**Lekua:** Baionako fakultatean 29-31 rue du Comte de Cabarrus 64100 BAIONA.

**Zuzendaria.** Maite Lafourcade lapurtar anderea Baionako fakultatean lege irakaslea dena, da eta Gregorio MONREAL ZIA.

Ikerketa eta Unibertsitate sailburu ohia, euskal jaurlaritzan, Zuzenbidearen kondairaz erakasle ohia.

#### Ikerlariak

Jon ARRIETA ALBERDI Zuzenbidearen kondairaz E.H.U. Donostian erakaslea.

Rosa AYERBE IRIBAR, Zuzenbidearen kondairaz (idem, ibidem)

Adrian CELAYA IBARRA Epaile ta Zuzenbide zibilaz era-ka-sle ohia, Deustuko unibertsitateko.

Juan de CHURRUCA Errromatar zuzenbide erakasle, Deustun

María Teresa LAFOURCADE anderea, Baionako fakultatean, Eskubideen kondairaz erakaslea

Gregorio MONREAL ZIA Eskubideen kondairaz ikerlaria, Eusko-Ikaskuntzako Lehendakaria.

Itziar MONASTERIO Zuzenbide zibileko erakaslea, Deustun

José Luis de ORELLA UNZUE Erdiharoko kondaira era-ka-sle E.H.U. Donostian.

Txomin PEILLEN CARRICABURU, Baionako fakultatean erakaslea, Ideologien historiaz ikerlari.

Virginia TAMAYO SALABERRIA Zuzenbide kondairaz erakaslea, E.H.U. Donostian

Andres URRUTIA Notari, Foru erakaslea Deustun; Euskaltzaindiko urgazle eta Jagon saileko lege aholkularia.

#### Akitaniakoak

Jean Pierre ALLINE, Pauko UPPA unibertsitatean Zuzenbide erakaslea.

Caroline DARRICAU, Baionako fakultatean, Zuzenbide kondaira erakaslea.

Etienne DRAVASA Bordele I. ko Zuzenbide kondairaren erakaslea.

Jacques POUMAREDE Zuzenbide kondaira erakaslea.

Toulouse le Miralekoa.

**Kideak** Louis CAILLET Paris XII. ko Zuzenbide kondairaz erakaslea; Dekano ohia Rouen-en. (Euskal legeez 25 ordu barna), europar doktoradutzaren burua.

#### Egitasmoa

Helburu nagusia. Euskal lege ta eskubideak ikertzea eta Akitaniakoekin erkatzea, azken horien artean pireneutarra izan gutxienik errromatar legeek kutsatuak. Ikerketa horiek Deustun, E.H.U., Donostian, Baionan eta Paris XII.an emango diren irakasketen sendogarri izan behar dute eta ikasleak formatu. Gainera Deustun xede berdineko Instituto de Estudios jurídicos bat antolatzen delako.

#### Baliapideaek

Iparraldean Baionan "Musée basque" delako eta, Hiriko Liburutegiak dokumentu asko daukate, ikertu gabeak eta Euskal herri osorako balio dutenak, halaber Pauko artxiboa eta Komerzia ta Industria ganbaran, hitzarmenak egiten dira fakultatearekin horien hobeki baliatzeko. Fakultatean berean Lafourcade andreak euskal gaietako liburutegi bat abiatu du.

Hegoaldean, Deustuko ta Donostia liburutegietan ta Aldundietakoetan, hirikoetan dokumentu asko dago, baita

Gasteizko Euskal Bibliografia Institutoan, denek ongi baliatze-ko hitzarmenak eskatuko dira.

### **Lehen lanen balorapena.**

Iparraldeko Lafourcade anderea kide zelarik, Hegoaldean Bizkai foruaren osagaien legeztatzea egin da. Lanak, ordea, doatzi jakiteko ea zenbateraino aplikatzen diren arau horiek. Iparraldean, alderantziz ikerlariak dabiltsan jakitzen nola legearen ixiliz aintzīñako foruetan agertzen ziren "ohiturak" indarretan diren. Talde horrek Eusko-Ikaskuntzako eskubide sailarekin lan egiten du, ikerlariak batean eta bestean daudelako.

### **Centre National de la Recherche Scientifique CNRS**

Denbora osoz eta titular bakarra Beriat Oyharçabal da, euskal hizkuntzalaritzaritzaz alorrean ikerketak egiten dituenak. Gero CNRS eta Euskaltzaindia egindako kontratuz Xarles Videgaineak Euskal Herriko Hizkuntz atlasean, Iparraldeko bilketa egin eta informatisaketan sartua dabila. Azken bi ikerlariak fakultateko euskal lizenziaturan erakasle ditugu, ordu gutxi baina garrantzitsuetan.

Ez Bordelen, ez Pauen, ez Baionan, ez dago inon euskal ikerketaren unibertsitari aldizkaririk eta denok nonbait FLV-en ASJUn, Euskera-n, eta CEEN -en, Hegats -en, Egan -en eta Mazzantini-n argitaratzen ditugu gure euskarazko ikerketa artikuluak. Unibertsitatetik kanpo, kalitate maila desberdinatan ikerlaritaldeek "Ikuska" ta "Ekaina" aldizkarietan zertxobait argitaratzen dute euskaraz eta frantses, gero, maila jasoagoan baina frantses soilean "Bulletin du Musee Basque" an.

Baigorriko "Izpegí" argitaletxeak jarraitzen du euskal kulturaren frantsesten, Euskal Herriari buruzko liburuak frantsez egiten; bulgarizaketa lan hori beharrezko da, gabezia gorriago delako, baina ez dio euskarari laguntzen. Ez dugu Iparraldean, oraindik, euskara ez dela gure latina, sinisten duen unibertsitari askorik, nahiz oraingoek euskaraz ere ikerlanak egiten dituzten.

Gure ikerketen hutsune haundiengoa, agian, CNRS -eko biz-pahirur lagunen arteko euskal talde bat ez izatea da. Frantziak daukan ikerketarako joerarekin ez da ametsik egin behar eta dagoena zaintzeko lanak izango dira %0,5 garelako hexagonoan euskaldunak. Doktoradutza jakinbide bat izan daiteke doktoreek ikerkunta jarrai balezate eta diru laguntzak bagentu Iparraldean hegoaldera jo gabe, ikerlan luzeen egiteko.

Gero Eusko - Ikaskuntza Iparraldean iker egitura berria ekartzen digu eta diote, unibertsitatean ez dabiltsan ikerlari onei: egoki lizateke bi egituren arteko elkar lanen babestea, baita gure elkartea gura duen moduan, beste unibertsitatee-kiko harremanak sendotzea ere. Askotan Iparraldean iker taldeetan sartzeko doktoradua behar da, eta doktor guztiak ez dira, urrundik ere, denak ikerlari onak, aldi zanpoan gelditzen zaizkigu beren sailean talderik ez dagoelako edota unibertsitateko astolarrua ez dutenak.

*Euskaltzaindia.* Euskaltzaindiak bere kongresuetarako eskatuta (Louis Lucien Bonaparte, Oihenart eta abar) edo batzordeetako ihardueretan Iparraldeko euskaltzainok ikerlan frango egiten dugu Euskera-n euskara soilean argitaratzen dizkigutenak.

### **Résumée. Etudes doctorales et recherches basques dans les Universités de France**

Le Doctorat d'Etudes Basques est un diplôme national français qui comprend, une première année semi-théorique

avec des enseignements de méthodologie, de langue et civilisation basques, qui donnent lieu à un examen qui comprend, un écrit, un oral et une présentation d'un mémoire d'une centaine de pages, puis le doctorat est préparé pendant trois, quatre ou au maximum cinq ans et peut être rédigé en deux langues (le français est obligatoire).

Ce doctorat, délivré sous double sceau, donne accès à l'enseignement supérieur en linguistique, en langue basque, et permet, éventuellement, l'entrée au Centre National de la Recherche Scientifique pour le domine basque.

L'URA 1055, est une unité de recherche de langue et littérature basques de Bordeaux III, qui regroupe une dizaine de chercheurs de ces domaines. Cette unité a organisé trois colloques de langue et culture basques et participé à trois congrès de l'Euskaltzaindia. L'URA a publié trois livres, coédité trois autres ces dernières années. Nous n'avons aucune revue, en France, pour la publication de recherches, rédigées en langue basque (le français est obligatoire, même si l'article ne peut intéresser que les bascophones sauf dans une revue nouvelle et privée *Ikuska*).

Le Centre d'Etudes Basques, section Juridique de la Faculté de Bayonne, dirigé par Madame Marie Thérèse Lafourcade, professeur à la Faculté et Monsieur Gregorio Monreal Zia de l'Université du Pays Basque et président d'Eusko-Ikaskuntza, est spécialisé dans l'histoire et dans l'actualité du droit basque.

L'équipe de chercheurs comprend des universitaires et juristes de tout le Pays Basque (Nord et sud) et d'Aquitaine. Ces chercheurs ont participé à la réactualisation et légalisation du For de Biscaye et les recherches portent sur l'application de ce droit basque en Pays Basque sud et la survivance discrète sous forme de coutumes au Pays Basque nord.

Le C.N.R.S. Un seul chercheur Bernard Oyharçabal est attaché au CNRS pour le Recherche Scientifique, et un autre est sous contrat CNRS-Euskaltzaindia, pour la réalisation de l'Atlas linguistique du Pays Basque nord.

### **Observations critiques sur l'ensemble de la recherche**

Nous constatons qu'à l'Instar du Pays Basque sud où de tels cas se produisent en Pays Basque nord aussi nous avons été très généreux dans l'attribution du doctorat d'Etudes Basques à des chercheurs peu objectifs, peu scientifiques et que de bons chercheurs non titulaires de "peau d'ânes" ou de groupe spécialisé sont écartés des recherches locales, fort heureusement la section Iparralde d'Eusko-Ikaskuntza pourra palier à ce défaut.

### **L'Académie Royale de Langue Basque (recherche non universitaire)**

Cette Académie dont le siège est à Bilbao, comprend sept académiciens du Pays Basque nord auxquels on demande des travaux de recherches à l'occasion des congrès (Onomastique, dialectologie, congrès Oihenart, Elizanburu etc..) De même universitaires ou non, les académiciens participent aux diverses commissions de l'Académie (Lexicologie, Grammaire, Dialectologie Langue standard, Onomastique, Littérature orale, Littérature écrite) pour lesquelles ils réalisent des recherches. Ces travaux ne peuvent être revendiqués par d'autres structures scientifiques, comme cela s'est produit, chaque chercheur doit choisir l'affectation de son travail.